Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Harpajolea
Juan Martin Elexpuru
IBAIZABAL
64 orrialde
9,40 euro

Detektibeen ezustea

Beltz kutsuko nobelatxoa da Juan Martin Elexpuruk Ibaizabal argitaletxearekin plazaratu duen *Harpajolea* eta hamar urtetik aurrerakoei zuzendua dago. Udalak urte askoan arbola ederren itzalpean egondako herriko plaza bat apaintzea erabaki du, Nikanor Iztueta harpajole sonatuaren omenez egindako irudi abstraktu ikusgarri batekin. Batzuen poza eta besteen haserrea ekarriko ditu horrek. Istiluak istilu, azkenean inaugurazio eguna iritsi da, eta hara non ohartzen diren zorioneko eskultura norbaitek lapurtu duela. Ondorioz, herritar gehienak poliziaren susmopean izango dira. Gauzak horrela, Joxepa dendaria eta Urrufiño zapataria lapurreta nork egin duen argitzeko asmoz elkartuko dira. Eta argitu, argituko dute, baina ezusteko galanta jasoz.

Etxepare, Aldudeko medikua
Kepa Altonaga
EUSKALTZAINDIA, EHU
334 orrialde / 18 euro

Jean Etxepare laikoak bere bi liburuengatik jasandakoa

Elizako jendea euskal giroan jaun eta jabe zebilen garaian bizitzea egokitu zitzaion Aldudeko medikua izandako Jean Etxepare idazleari (Argentinako Mar Chiquita 1877-Kanbo 1935). Liburu bi argitaratu zituen: *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931). Aurrenekoa, ausartegia suertatu bide zen garaiko Euskal Herri santu-jalean, eta etxeko mandioan gorde behar izan zituen liburuaren aleak, bahitu ez ziezazkioten. Nolakoa izango zen eskandalua, mediku idazlearen andregaiak berarekin hautsi egin zuenerako. Eta *Beribilez*ek eboluzionismoaren "benenoa" darama lerro artean, Laffite eta Villasante elizgizon bezalakoentzat. Baina, hain zuzen ere, horrek egin zuen haren lana erakargarri Kepa Altonagarentzat.

Euskal bidelapurrez

David Zapirain Karrikak euskal bidelapurren gainean egindako lana da *Bandoleros vascos*. XVII. mendetik lehen karlistada hasi zen arte euskal mendate eta bideetan ibiltzen ziren bidaiariei lapurretak egiten zizkietenen historia da. Baina Trintxerpeko historialaria ez da bidelapur haien ekintzak azaltzera mugatu, nahiz eta ekintza horien lekukotasun ugari topatu duen artxiboetan. Gehiago sakondu nahi izan du, bidelapur bilakatzeko pertsona haiek bizi izan zuten garai eta gizarteko zein faktorek eragin zuten agertzeko. Eta Zapirainek arrazoi ekonomikoekin egin du topo bilaketa lan horretan. Horrela, Ttarttaloren eskutik kaleratu den *Bandoleros vascos* liburua irakurtzen duenak XVII eta XIX. mendeen arteko euskal gizartea sakontasunez ezagutzeko parada izango du.

Bandoleros vascos
David Zapirain Karrika
TTARTTALO
144 orrialde
12,60 euro

Tomasen tristura lagunak joatean

Ricardo Alcántara uruguaiarrak bost urtetik aurrerako haurrentzat idatzitako *Tomas eta guraize magikoak* ipuinean maite ditugunak galtzeak eragiten digun tristura gainditzeko ditugun aukerak azaldu ditu. Duela urte askotxotik Bartzelonan bizi den idazle honen kontakizuna Iñaki Zubeldiak euskaratu du, eta Gustik egindako marrazki koloretsu bezain esanguratsuekin apainduta agertzen da. Protagonista Tomas da, bere lagunekin egotea izugarri gustatzen zaion egurrezko panpina. Hiru lagun min ditu Tomasek, eta ia egun osoa elkarrekin ibiltzen dira, etengabe jolasean. Baina halako batean horietako bik bidaia bat egitea erabakiko dute, eta geroztik Tomas goibel dago. Ez du aldamenean duen lagunarekin jolastu ere egin nahi. Baina adiskide horrek alaitasuna berreskuratzeko era erakusten dio, eta orduan...

Tomas eta guraize magikoak
Ricardo Alcántara
IBAIZABAL
46 orrialde
8,10 euro

Jakin

Batzuen artean

JAKIN

128 orrialde

9,50 euro

Mirande Barojaren euskotasunaz

Jakin-ek 158 zenbakian Joan Mari Torrealdai zuzendariak 2005. urtean euskaraz argitaratutako liburuei buruz egindako azterketa eskaintzen du. Gainera, *50eko hamarkada Euskal Herrian* gaiaren inguruan iazko azaroan Donostiako Koldo Mitxelenan antolatutako topaketan Joseba Intxaustik eta Joxe Azurmendik eskaini zituzten gogoetak agertzen ditu. Eta guztia borobiltzeko, bitxikeria bat ere argitaratu dute: Pio Barojaren heriotza zela-eta 1956ko abenduaren 1ean Parisko *Euzko Deya* aldizkarian egilearen izenik gabe azaldu zen lan bat. Joxe Azurmendik dioenaren arabera, badira testuan hainbat zantzu autorea Jon Mirande baino ezin zitekeela izan pentsarazteko. ▮

Pinpirin ederra bilakatu zen beldar ñimiñoaren istorioa

Ikas pedagogia zerbitzuak plazaratutako haurrentzako liburua da *Beldar gosetia*. Pinpirin –tximeleta edo inguma ere deitzen zaio hego koloretsu zoragarriak dituen intsektu honi– bilakatu arte beldar txikiak jaten dituen gauza guztien azalpena da. Sagarrak, udareak, aranak, marrubiak, laranjak, izozkiak, gazta, salamia, lukainka eta beste gauza asko irensten ditu beldar horrek, asetu eta sabeleko minez bukatu arte. Eta liburuak jandako guztien irudiak biltzen ditu, baita pinpirin koloretsu bilakatu den beldarrarena ere. ▮

Beldar gosetia

Eric Carle

IKAS

32 orrialde / 6 euro

egileari galdezka

KATIXA AGIRRE

«Literaturan promiskuitatearen aldekoa naiz erabat»

Zer aurkituko du zure liburuaren irakurleak?

Ipuin gehienak gutxi-asko hemengo jendeari buruzkoak dira, gaur egun edo lehenaldi hurbilean kokatuak; baina bada bat, *Festa gonbidatuak*, aski diferentea. Diferentea arrazoi zirkunstantzialengatik. Patricia Highsmith-en maitale baten memoria-liburua irakurtzen ari nintzela otu zitzaidan. Liburu horretan autoreak Highsmithekin bizi izandako bi urte deskribatzen ditu, Pensilvaniako herrixka urrun batera bizitzera joan zirenekoak. Beraz, ipuina ere Pensilvanian kokatuta dago, 60ko hamarkadaren hasieran, baina ez naiz gehiegi gelditzen garai eta leku hori deskribatzen, pertsonaiak eta haien arteko harremanak dira funtsa. Kasu honetan, beste ipuinetan bezala, harreman asimetriko samar bat, konplikatua, interesgarria.

Ipuinez gain, beste literatur generoetan ahalegindu al zara?

Literaturari dagokionez promiskuitatearen aldekoa naiz erabat: guztia probatu nahiko nuke, nobelagintza, saiakera, antzerkigintza... Kontua da, momentu honetan, burura etortzen zaizkidan ideientzako ipuina dela forma naturalena. Hala iruditzen zait, eta ez ditut gauzak gehiegi bortxatu nahi.

Ironia askotxo dago zure narrazioetan. Arrazoia?

Umoreari izugarrizko garrantzia ematen diot, bizitzako arlo guztietan. Umorerik gabeko pertsonekin ez naiz ondo konpontzen. Eta ironiarik gabe zer egingo genuke? Ironiak erlatibizatzeko aukera ematen digu, geure buruaz eta inguratzen gaituenaz apur bat barre egiteko. Eta eskerrak, bestela nola jasan inguratzen gaituen petralkeria guztia?

Idazle gazte baten zazpi kontakizun indartsu

Harreman asimetriko samarrak eta korapilotsuak islatzen ditu Katixa Agirre Miguélezek (Gasteiz, 1981) bere aurreneko liburuan. Zazpi kontakizun kaleratu ditu eta istorio horietako baten titulua dauka liburuak izenburutzat, *Sua falta zaigu* izenekoa. Nerabezaroko desengainuak eta munduak zerbait zor digula sentitzea agertzen dira ipuin horretan. Bihotzondo desatsegin horiek heldutasunean ere geure gainean jarraitzen dute, norbaitek kale egiten digunean, edo guk geuk norbaiti huts egin diogula sumatzen dugunean. Eta arazo horiez guztiez mintzo da Katixa Agirre bere aurreneko lanean azaldutako zazpi ipuinetan: bai haurtzaroan lagun min izandakoarekin gerora harremanak nola hozten diren agertzerakoan, bai besteekiko izan dezakegun estimuaren ahuldadea islatzerakoan, edo harremanik sutsuenak eragin dezakeen amorrazioaren gradua azaltzerakoan. Katixa Agirrek Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen Leioan eta gidoigintza Madrilen. Lehiaketa bateko erredaktore telebistan, bideo-jokoetako gidoilari eta enkarguzko biografien idazle izan da. Gaur egun doktoretza egiten ari da EHUn, Lolita pertsonaiaren bilakaerari buruzko tesi batekin. ■

Sua falta zaigu

Katixa Agirre

ELKAR

180 orrialde

13,90 euro